# Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza

ibai bi
proiektua
i.by2

GIDA

**Proiektua**
i.by2

**Egilea**
Juanjo Leanizbeaskoa

Liburu honen salmentaren % 0,7 Chibuluma (Zambia), eskola bat eraikitzeko izango da. Eskola horren eraikuntza kudeaketaz SED (Solidaridad, Educación, Desarrollo) izena duen Gobernuz Kanpoko Erakundea arduratzen da.

IBAIZABAL

**Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2009-01-08).**

**Gerentea**
Agustin M. Oiarzabal

**Edizio zuzendaria**
Sabin Gorrotxategi

**Edizio koordinazioa**
Eukene Herrera

**Produkzio koordinazioa**
Eukene Herrera, Nerea Uribe

**Barruko diseinua**
Alberto Robledo, Nerea Uribe

**Maketazioa**
Nerea Uribe

**Testua**
Hitzurun

**Azaleko argazkia**
Jabi Artaraz

**Azaleko irudiaren diseinua**
Alberto Robledo, Olatz Díaz de Lezana, Nerea Uribe

**Inprimaketa**
Cuatroas S. L.
Ibarsusi bidea, 1 -1. - 48004 Bilbao - 94 410 60 52
cuatroas@cuatroas.com

**Herritartasunerako Hezkuntza Gida - 18586**
ISBN: 978-84-8394-137-9 – Lege Gordailua: BI-136-09

© Juanjo Leanizbeaskoa, 2009

© Ibaizabal argitaletxea, 2009

Argitalpen honen eskubide guztiak Ibaizabal Edelvives S.A. argitaletxearen esku geratzen dira. *Copyrightaren* titularren idatzizko baimena lortu ezean, ezin da lan hau osorik edo zatika berregin, bidea edo prozedura edozein delarik ere (erreprografia eta tratamendu informatikoa barne), ezta aleak publikoki errentan utzi edota maileguan eman ere. Bestela, legeetan zehaztutako zigorrak ezarriko dira.

Liburu honetako jarduera guztiak
koaderno batean egin behar dira, inoiz ere ez liburuan bertan.

Debekatuta dago, legeak zehaztutako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein paratako berregitea, banaketa, komunikazio publikoa edota moldaketa, aurrez titularren baimena eskuratu gabe. Obra honen zatiren bat eskaneatu edo fotokopiatu behar baduzu, eskatu baimena CEDRO erakundeari (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

# Aurkibidea:

1 SARRERA . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 4

2 IBAIZABALEN PROIEKTUA, HERRITARTASUNERAKO ETA GIZA ESKUBIDEETARAKO HEZKUNTZAN . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 4

1.1. Ikasgaiaren helburua . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 4

1.2. Beste ikasgaiekiko erlazioa . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 5

3 OINARRIZKO GAITASUNAK LORTZEKO HERRITARTASUNERAKO ETA GIZA ESKUBIDEETARAKO HEZKUNTZAK EGITEN DUEN EKARPENA . . . . . . . . . . . . . . . . . . 5

4 HELBURU OROKORRAK . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 6

5 EDUKIEN EGITURATZEA . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 8

6 GURE PROPOSAMENA . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 9

7 HELBURUAK, EDUKIAK ETA EBALUAZIOA (unitateka) . . . . . . . 11

8 OINARRIZKO GAITASUNAK . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 19

9 PROPOSATUTAKO ARIKETEN ERANTZUNAK . . . . . . . . . . . . . . . 23

10 KONPETENTZIAK . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 39

11 PROBA OBJEKTIBOAK . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 41

12 PROBA OBJEKTIBOEN ERANTZUNAK . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 48

# 7 HELBURUAK, EDUKIAK eta EBALUAZIOA (unitateka)

# 1 UNITATEA

# Bizikidetza

## HELBURUAK

1. Giza egoera bere dimentsio osoan onartzea, bai gizabanako gisa, bai izaki sozial gisa.
2. Norberaren identitatea onartzea, norberaren ezaugarri eta esperientziak, eta autoestimua garatzea.
3. Gatazkei aurre egiteko elkarrizketa eta bitartekaritza erabiltzea.
4. Pertsonen arteko harremanak garatzea, zoriontsu izan gaitezen eremu fisiko, psikiko eta sozialean.
5. Herritartasun kontzeptua ezagutzea.
6. Taldearen erabakien aurrean jarrera tolerantеak hartzea, norberaren ideiak eta asmoak baztertu gabe.
7. Ahaleginaren balioa sustatzea, autoestimuarekin lotutako gogobetetze-prozesuetan.
8. Sentimenduak eta emozioak adieraztea eta garatzea.

## EDUKIAK

### Kontzeptuzkoak

1. Sozializazio-prozesua. Askatasuna eta erantzukizuna.
2. Autokontzeptua, autoezagutza eta autoestimua.
   2.1 Bizi-egitasmo pertsonala.
3. Pertsonen arteko harremanak.
   3.1 Harreman afektiboak.
      3.1.1. Adiskidetasuna.
      3.1.2. Maitasuna.
      3.1.3. Sexualitatea.
      3.1.4. Famili harremanak.
   3.2. Pertsonen arteko harremanak eta teknologia berriak.
   3.3. Herritartasun kontzeptua.
      3.3.1. Zer da Herritartasunerako Hezkuntza?
   3.4. Giza gaitasunak eta gatazken bideratze positiboa.

**Hezkuntza emozionala:**

Zer da hezkuntza emozionala?
Gure eta besteen emozioak ezagutzen jakiteak duen garrantzia.

### Prozedurazkoak

1. Norberaren bizi-egitasmoa egitea.
2. Denbora-pasak egitea.
3. Idatzizko eta ahozko adierazpena.
4. Testuak irakurri eta interpretatzea.
5. Gatazkak bideratzeko proposamena.
6. Role Playing.
7. Kontzeptuen definizioak egitea.
8. Diskurtsoak egitea.

### Jarrerazkoak

1. Askatasunaren eta erantzukizunaren balioa garatzea.
2. Gure inguruko pertsonen garrantzia onartu eta balioestea.
3. Pertsonaren balioespen positiboa eta mugak onartzea.
4. Familiako eta pertsonen arteko harremanetan begirunea, elkarrizketa, maitasuna, samurtasuna barneratzea.
5. Balio eta ideal komunak dituen herritar-talde baten partaide izatearen atsegina sentitzea.
6. Emozioak adieraztearen garrantzia onartzea.

## EBALUAZIOA

1. “Askatasun arduratsuaren” garrantzia adieraztea.
2. Autoezagutza eta autoestimua kontzeptuen esanahia ezagutzea.
3. Norberaren bizi-egitasmoa egitea, eta burutu ahal izateko konpromiso mailak jartzea.
4. Adiskidetasun, maitasun, sexualtasun eta sexu kontzeptuak bereiztea.
5. Herritartasun kontzeptua definitzea.
6. Gatazkak modu positiboan bideratzen jakiteko urratsak identifikatzea.
7. Norberaren eta besteen emozioak identifikatzearen garrantzia adieraztea.

2 UNITATEA

# Partaidetza

## HELBURUAK

1. Demokraziaren esanahi historikoa balioestea eta sistema demokratikoen oinarrian dauden printzipioak estimatzea.
2. Politikan parte hartzea sustatzea, edo herriaren bizitzan esku hartzeko beste zenbait modu.
3. Legeen testuetatik sortzen diren eskubideak eta betebeharrak ezagutzea.
4. Herrian eta eskolan parte hartzeko moduak ezagutzea eta balioestea.
5. Erakundeen garrantzia balioestea, zerbitzu publikoen eta guztion onaren bermea diren heinean.
6. Begirunea pertsonaren sentimendurik nobleenetariko gisa balioestea.
7. Agintaritza begirune mota gisa ulertzea.

## EDUKIAK

### Kontzeptuzkoak

1. Demokrazia eta partaidetza politiko-soziala.
   1.1. Demokrazia kontzeptua.
   1.2. Demokraziaren hastapenak.
2. Konstituzioa.
   2.1.Demokrazia ordezkatzailea.
3. Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutua.
4. Nafarroako Foru Erkidegoa.
5. Erakunde demokratikoak.
   5.1. Gorte Nagusiak.
   5.2. Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak.
   5.3. Nafarroako Foru Erkidegoa.
   5.4. Maila orokorrean.
   5.5. Auzitegiak.
   5.6. Arartekoa.
6. Aniztasuna eta pluraltasuna. Europari begira.
7. Partaidetza.
   7.1. Partadidetza ingurunean.
   7.2. Partaidetza sozialeko beste zenbait forma.
   7.3. Eskolako partaidetza.
8. Guztion ona.

**Hezkuntza emozionala:**

Begirunea.

### Prozedurazkoak

1. Demokraziari buruzko elkarrizketa.
2. Lege-testuen irakurketa eta interpretazioa.
3. Tokian tokiko erakundeen kokapenari buruzko dokumentazioa.
4. Interneten erabilpena dokumentazio-lanetarako.
5. Europar Batasuneko estatu kideei buruzko txosten bat egitea.
6. Europar Batasunaren bandera marraztea.
7. Denbora-pasak burutzea.
8. Herritartasunari eta pertsona zein gauzekiko “errespetu faltari” buruzko gogoeta.
9. Debatea. “Graffitiak: arte-adierazpena ala ondasun publikoen aurkako atentatua?”
10. “Bide-hezkuntzari” buruzko test bat egitea eta gaiari buruz gogoeta egitea.

### Jarrerazkoak

1. Demokrazia bizikidetza erraz dezakeen gobernu mota posiblerik onena bezala barneratzea eta balioestea.
2. Lege-testuak demokraziaren berme gisa balioestea.
3. Dokumentuetako eduki nagusiak ezagutzeko interesa; batik bat, oinarrizko eskubideei eta askatasun publikoei dagozkienak.
4. Aniztasunaren eta pluraltasunaren printzipioak balioestea eta errespetatzea bizikidetza demokratikoaren esparruan.
5. Ondasun publikoekiko begirune jarrerak praktikatzea eta herritar gisa dauzkagun konpromisoak eta erantzukizunak betetzea.
6. Begirunea pertsonaren baliorik nobleenetariko gisa estimatzea.

## EBALUAZIOA

1. Demokrazia kontzeptua ezagutzea.
2. Demokraziazko partaidetza sozialaren garrantzia adieraztea.
3. Hainbat testu juridiko helburu nagusiak ezagutzea.
4. Erakundeak identifikatzea: nazionalak, erkidegokoak, foru mailakoak...
5. Hainbat partaidetza mota ezagutzea eta balioestea.
6. Begirunea zergatik den beharrezkoa jakitea.
7. Debate bat egiten jakitea, nork bere ideiak ekarriz eta besteenak errespetatuz, txandak eta prozesua bezalaxe.
8. Txosten egokiak egitea.

# 3 UNITATEA

# Aniztasuna

## HELBURUAK

1. Oraingo gizarteen aniztasuna identifikatzea, eta dibertsitateak ekartzen dituen balioak eta aberastasuna onartzea.
2. Bizikidetza estimatzea eta pertsona guztien eskubide- eta aukera-berdintasuna defendatzea.
3. Bidegabekeria, diskriminazio edo baztertze egoera mota guztiak arbuiatzea, dela generoagatik, sinesmenagatik, ezberdintasun sozialagatik, sexu-jokabideagatik, ezgaitasunengatik...
4. Herritartasun global bateko partaide garela ohartzea, eta jende ezberdinen ohitura eta bizimoduekiko begirune kritikoa erakustea.

## EDUKIAK

### Kontzeptuzkoak

1. Gizarte plural batean bizi gara.
   1.1. Aniztasuna, diferentzia, berdintasuna/ezberdintasuna.
   1.2. Kultura.
   1.3. Kulturarteko gizarte baterantz.
   1.4. Diferentzia/berdintasuna.
2. Globalizazioa.
3. Berdintasun soziala.
   3.1. Ezgaitasuna, dibertsitate mota bat.
   3.2. Gutxiengo etnikoak.
4. Aniztasuna balioetsi.

**Hezkuntza emozionala:**

Gorrotoa

### Prozedurazkoak

1. Inguruneko pertsonak zenbait aldagarrien arabera sailkatzea.
2. Kontzeptuak definitzea eta ezberdintzea.
3. Idatzizko eta ahozko adierazpena.
4. Eguneroko osagarriak eta beren jatorria identifikatzea.
5. Ezgaitasunaren analisi kritikoa egitea.
6. Gorrotoa nabarmendu den egoera historikoen zerrenda bat egitea.

### Jarrerazkoak

1. Ingurune hurbilean bizi diren pertsona mota ezberdinak ezagutzeko interesa.
2. Aniztasuna aberasgarri gisa hartzea, bai pertsonentzat bai gizarteentzat.
3. Globalizaziotik sorturiko balio positiboak barneratzea, eta negatiboekiko jarrera kritikoa erakustea.
4. Marjinazio edo arbuiapen egoerez ohartzeko sentiberatasuna.
5. Gorrotoa arbuiatzea, maitasunaren aurkakoa delako eta indarkeria mota ezberdinen sustraietan dagoelako.

## EBALUAZIOA

1. Hainbat aniztasun eta dibertsitate mota ezagutzea eta balioestea.
2. Kulturartekotasun eta globalizazio kontzeptuak definitzea.
3. Giza berdintasuna premiazko egiten duten arrazoiak adieraztea.
4. Kultura kontzeptua ezagutzea.
5. Gorrotoa maitasunaren aurkako zerbait gisa ikustea, baita bidegabekeriaren oinarri ere.
6. Ideiak zuzen adieraztea, bai idatziz bai ahoz.

# 4 UNITATEA Berdintasuna

## HELBURUAK

1. Aukera-berdintasunak zer suposatzen duen jakitea: jendearen arrakastarako posibilitateak beren gaitasunekin eta merituekin bakarrik lotuta daudela, hain zuzen.
2. Berdintasuna obligazio gisa ulertzea, emakumeen eskubideak onartzea, eta sexuen arteko diferentzia eta haiekiko eskubideen berdintasuna balioestea.
3. Emakumearen aurkako edozein estereotipo eta indarkeria mota arbuiatzea.
4. Etxeko lana partekatu beharraren kontzientzia izatea.
5. Pertsonen arteko harremanetan enpatia erabiltzea.

## EDUKIAK

### Kontzeptuzkoak

1. Berdintasuna eta identitatea.
   1.1. Berdintasunerako bidea.
   1.2. Mugimendu feminista.
   1.3. Generoa.
   1.4. Zertaz dihardugu berdintasunaz hitz egiten dugunean?
2. Estereotipo femeninoak.
3. Etxeko lana.
   3.1. Gizonaren eta emakumearen arteko erantzukizun partekatua.
4. Emakumeen aurkako indarkeria.
   4.1.Tratu txarrak etxean.

**Hezkuntza emozionala:**
Enpatia

### Prozedurazkoak

1. Informazioa biltzea eta ideiak konparatzea.
2. Ahozko eta idatzizko adierazpena.
3. Kontzeptuak eta ideiak erlazionatzea.
4. Berdintasunaren aldeko borrokari buruzko kronologia osatzea.
5. Ikertu ondoren, euskal matriarkatuari buruzko txostena egitea.
6. Berdintasun eta identitate kontzeptuak bereiztea.
7. Emakumeari buruzko iragarki edo mezu publizitarioak hautatzea eta kritikoki interpretatzea.
8. Internet erabiltzea generozko indarkerian sakontzeko.
9. Izatezko iritziak eta balio-iritziak bereiztea.

### Jarrerazkoak

1. Aukera-berdintasuna pertsonaren eskubide ukaezin gisa balioestea.
2. Emakumearen berdintasunerako bidea ezagutzeko interesa.
3. Emakumeei dagokienez estereotipo mota guztiak arbuiatzea.
4. Etxeko lanak egitea, sexuari begiratu gabe.
5. Emakumearen aurkako tratu txarrak antzemateko sentiberatasuna izatea, eta egoera horiek salatzea.

## EBALUAZIOA

1. Berdintasun eta identitate kontzeptuak bereiztea.
2. Mugimendu feministaren arlo nagusiak ezagutzea.
3. Generoa definitzea.
4. Emakumearen eta gizonaren erantzukizun partekatuaren beharra onartzea.
5. Tratu txarra suposatzen duten jarrerak identifikatzea.
6. Iragarkiak edo mezu publizitarioak kritikoki analizatzea.
7. Hainbat informazio mota modu egokian erabiltzea.
8. Enpatia kontzeptua definitzea.

# 5 UNITATEA

# Giza Eskubideak

## HELBURUAK

1. Giza Eskubideen Adierazpenetik sorturiko eskubide eta obligazio nagusiek geureganatu eta balioestea.
2. Giza eskubideen sailkapenak eta sailkapen horien arrazoiak ezagutzea.
3. Giza eskubideak urrarazten dituzten arrazoiak identifikatzea.
4. Arbuiagarri diren zenbait diskriminazio-egoera adieraztea.
5. Haurren Eskubideen Adierazpenak Giza Eskubideen Adierazpenarekin duen lotura ezagutzea.
6. Herritartasun global batekiko pertenentzia sustatzea, bidegabekeriazko egoerak identifikatzea eta arbuiatzea, eta bakearen alde lan egitea.
7. Gerren zenbait arrazoi eta ondorio identifikatzea.
8. Motibazioak norberaren lorpenetan duen garrantzia ezagutzea eta balioestea.

## EDUKIAK

### Kontzeptuzkoak

1. Giza Eskubideen Adierazpena. Gizadiaren lorpenik handienetakoa.
   1.1. Pertsona, eskubideak eta betebeharrak dituen izaki soziala.
2. Giza eskubideen sorrera.
3. Giza eskubideen ezaugarriak.
4. Giza eskubideen sailkapena.
5. Giza eskubideak kode etiko gisa.
6. Giza eskubideen defentsa.
7. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena.
   7.1. Haurrak eta errealitatea.
8. UNICEF eta haurren eskubideak
9. Bakea eraikitzea.
   9.1. Gatazka armatuak.
   9.2. Munduko gatazkei buruzko zenbait datu.

**Hezkuntza emozionala:**

Motibazioa

### Prozedurazkoak

1. Nork bere “eskubide” eta “betebehar” kontzeptuen definizioa egitea.
2. Nazio Batuei eta Amnesty Internationali buruzko informazioa jasotzea.
3. Ahozko eta idatzizko adierazpena.
4. Denbora-pasak burutzea.
5. Kontzeptuak eta definizioak identifikatzea.
6. Gelako eskubideen eta betebeharren zerrenda bat egitea.
7. Eskubideak sailkatzea.
8. Testu bateko ideia nagusiak laburbiltzea.
9. Haurren eskubideei buruz hausnartzea.
10. Internet erabiltzea, UNICEF eta bere proiektuari buruzko informazioa biltzeko.
11. Gaur egun munduan dauden gatazka nagusiak kokatzea eta sailkatzea.
12. Prentsa-dossier bat egitea.

### Jarrerazkoak

1. Giza Eskubideen Adierazpena gizadiaren lorpenik handienetako gisa balioestea.
2. Giza Eskubideen Adierazpenaren edukia eta garrantzia ezagutzeko interesa agertzea.
3. Bizikidetzarako oinarrizko betebehar eta arauak balioestea.
4. Oinarrizko giza eskubideak urratzen diren egoerak identifikatzeko erne egotea, eta beraiekiko sentiberatasuna adieraztea.
5. Haurren eskubideak premia gisa estimatzea.
6. Haurren alde lan egiten duten erakundeen lana balioestea.
7. Indarkeria mota oro arbuiatu, eta bakearen balioa estimatzea.
8. Motibazioa gure ekimenen eragile gisa balioestea.

## EBALUAZIOA

1. Giza eskubideak herritarren balio funtsezko eta komunak bezala onartzea.
2. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren printzipioak, eskubideak eta betebeharrak identifikatzea.
3. Giza eskubideen ezaugarri nagusiak ezagutzea.
4. Giza eskubideak urratzen diren egoerak arbuiatzea eta salatzea.
5. Giza Eskubideen Adierazpena eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena erlazionatzea.
6. UNICEFen ezaugarri nagusiak ezagutu eta egiten duten lana balioestea.
7. Gerra-gatazken zenbait arrazoi eta ondorio deskribatzea.
8. Bake kontzeptua definitzea.
9. Testuak hautatu eta analizatzen jakitea.

# 6 UNITATEA

# Herritartasuna mundu global batean

## HELBURUAK

1. Berdintasunik eza gaurko munduaren ezaugarri gisa ezagutzea eta arrazoiak eta ondorioak kritikoki balioestea.
2. Globalizazioak gaurko munduan dituen ondorioak identifikatzea.
3. Globalizazioak lurraldeen garapen ekonomikoan dituen ondorio positibo eta negatiboak gogoan hartzea, eta aberatsak eta pobreak bereizten dituen tarte gero eta handiagoa.
4. Garapen iraunkorraren aldeko zenbait programa ezagutzea.
5. Ingurumenaren egoeraz kontzientziatzea eta berau zaintzearen aldeko jarrera arduratsuak hartzea.
6. Eskola Agenda 21ean aktiboki parte hartzea.

## EDUKIAK

### Kontzeptuzkoak

1. Globalizazioa eta elkarren menpekotasuna.
2. Pobrezia.
   - 2.1. Pobrezia eta Hirugarren Mundua.
     - 2.1.1. Garapenerako laguntza.
     - 2.1.2. Milurtekoaren helburuak.
     - 2.1.3. Pobreziaren aurpegiak.
   - 2.2. Pobrezia eta Lehen Mundua.
     - 2.2.1. Enplegu falta.
3. Garapen iraunkorra
   - 3.1. Garapen Iraunkorraren Euskal Estrategia 2002-2020
   - 3.2. Agenda 21
     - 3.2.1. Tokiko Agenda 21
     - 3.2.2. Eskola Agenda 21
4. Zentzuzko kontsumoa

**Hezkuntza emozionala:**

Berdintasuna

### Prozedurazkoak

1. Globalizazioak eguneroko bizitzan dituen efektu praktikoen zerrenda bat egitea.
2. Globalizazioaren alde positiboei eta negatiboei buruz hausnartzea.
3. Denbora-pasak burutzea.
4. “Lurralde pobreak” eta “lurralde pobretuak” kontzeptuak bereiztea.
5. Txostenak egitea.
6. Internet erabiltzea Plataforma 0,7 eta Merkataritza zuzenari buruz dokumentatzeko.
7. “Ezinbesteko gastuen” eta “Gazteen marka gustukoen” zerrendak egin eta hori guztia kuantifikatzea.
8. Testu-iruzkina.

### Jarrerazkoak

1. Globalizazioak ekartzen dituen balioak aurkitu eta barneratzea.
2. Elkarren menpekotasunaz konzientziatzea, berdintasun-egoera batean.
3. Merkatuaren legeekiko jarrera kritikoa.
4. Pobreziaren giza aurpegia aurkitzea.
5. Solidaritatearen zerbitzura jarritako ekonomiaren defentsa.
6. Iraunkortasunaren alde lan egiteak ekartzen dituen balioak barneratzea.
7. Giza berdintasuna eskubide eta betebehar gisa baloratzea.

## EBALUAZIOA

1. Globalizazioren eta elkarren menpekotasunaren zenbait ezaugarri identifikatzea gaurko gizartean.
2. Milurtekoaren Helburuak ezagutu eta beraiek lortzeko jarrera arduratsuak garatzea.
3. “Pobrezia” kontzeptua Lehen eta Hirugarren Munduan ezagutu eta bereizten jakitea.
4. Mundu mailan eta gure inguruan garapen iraunkorraren alde egiten diren jarduerak ezagutzea.
5. Eguneroko bizitzan jarrera legebidezko eta parte-hartzaileak erakustea ingurumenaren zainketaren eta kontsumo arduratsuaren eremuetan.
6. Testu bat modu ulergarrian irakurtzen jakitea, egitura ezagutzea eta ideia nagusiak ateratzeko gauza izatea.
7. Berdintasuna balio gisa onartzea.